Irurtzunen, bi mila eta hamaikako irailaren 9an, arratsaldeko zazpiak direnean, Ezohiko Bilkura egitearren Irurtzungo Udaleko Udalbatza, legeak agintzen duen moduan deituta, Batzar-gelan elkartu da Juan Jose Iriarte Vitoria alkate-lehendakaria buru dela. Bertan izan dira ondoren aipatzen diren zinegotziak:

Francisco Goicoechea Arbizu
Miren Eskarne Urteaga Zubia.
Saray Ongay Garcia
Jon Joseba Beguiristain Jauregui
Antonio Garcia Garcia
Jose Javier Sarasola Gorriti
Iñaki Razquin Barandiaran
Felix Javier Mendia Villanueva
Luis Enrique de la Calle Moreno.
Jesus Pacho Lobato

Eta idazkaria naizen hau, Concepcion Lopetegi Olasagarre.

En Irurtzun, siendo las diecinueve horas del día 9 de septiembre de dos mil once, se reúne en la Sala de Sesiones el Pleno del Ayuntamiento de Irurtzun al objeto de celebrar Sesión Extraordinaria, previamente convocada en forma legal, bajo la Presidencia del Alcalde-Presidente, Juan José Iriarte Vitoria, con la asistencia de los siguientes Concejal@s:

Francisco Goicoechea Arbizu
Miren Eskarne Urteaga Zubia.
Saray Ongay García
Jon Joseba Beguiristain Jauregui
Antonio García García
José Javier Sarasola Gorriti
Iñaki Razquin Barandiaran
Felix Javier Mendia Villanueva
Luis Enrique de la Calle Moreno.
Jesús Pacho Lobato

Asistidos por mí la Secretaria, Concepción Lopetegi Olasagarre.

**1.- 2011ko EKAINAREN 11ko ETA 14ko BILKUREN AKTAK ONARTZEA.**

Akta horiek aho batez onartu dituzte bertan direnek.

**1.-APROBACION DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES DE LOS DIAS 11 Y 14 D JUNIO DE 2011.**

Dichas actas quedan aprobadas por unanimidad de l@s presentes.

**2.- ALKATETZAK HARTUTAKO ERABAKIEN BERRI EMATEA, 179/2011 ZENBAKIDUNETIK 241/2011 ZENBAKIDUNERAINO, BIAK BARNE.**

Osoko bilkuraren espedientean jasotako aipatu ebazpenen zerrenda irakurri da.

**2.- DAR CUENTA DE LAS RESOLUCIONES DE ALCALDIA Nº 179/2011 A LA 241/2011, AMBAS INCLUIDAS.**

Se dá lectura a la relación de las mencionadas Resoluciones, que obra en el expediente del Pleno.

**3.-LANKIDETZA PROIEKTUETARAKO LAGUNTZAK ONARTZEA**

**3.-APROBACION DE LAS AYUDAS A PROYECTOS DE COOPERACION.**

Ogasun Batzordearen buru eta zinegotziak esan du aipatu batzordeak pasa den ekainean egindako bileran oniritzia eman zitzaiola orain osoko bilkurara ekarritako proposamen honi. Zinegotziak proposamenaren laburpena egin du, eta aipatu ditu proiektuaren izena eta proposatutako laguntzaren zenbatekoa.

Aferaren edukia bozkatuta, Osoko Bilkurak, bertan diren kide guztien aldeko botoarekin, honako akordioa onartu du:

Garapenerako lankidetza-proiektu hauetara- ko laguntza onartzea:

- Lodosako 'La Esperanza' Elkarteari, 4.000 €
- 'Bakerako Lankidetza Batzarrari', 3.000 €.
- Mugarik gabe taldeari, 2.000 €
- RASD Adiskidantzarako Nafar Elkarte Anarasd-i, 3.000 €

El concejal y Presidente de la Comisón de Hacienda informa de que en la reunión de la citada Comisión de junio pasado ya se dictaminó favorablemente sobre la propuesta que se trae al Pleno, de la que hace un resumen, mencionando el nombre del proyecto y el importe de la ayuda propuesta.

Sometido el asunto a votación, el Pleno, por unanimidad de sus miembros presentes, aprueba el siguiente Acuerdo:

Aprobar las siguientes ayudas a proyectos de cooperacion al desarrollo:

- A la Asociación “La Esperanza”, de Lodosa, 4.000 €
- A la “Asamblea de Cooperacion para la paz”: 3.000 €.
- A Mugarik Gabe: 2.000 €
- A Anarasd ( Asociacion Navarra de amig@s de la R.A.D.S: 3.000 €

## 4.-KONTUEN BATZORDE BEREZIA-REN OSAERA:

Alkateak esan du gai hau eguneko aztergaietan sartu dutela uste baitzuen batzordea ez zegoela eratua, aipatu batzordearen osaera pasa den ekainean onartu zen arren. Alabaina, lehendik onartutako osaera horren barnean Ogasun Batzordearen burua ez zegoela ikusita, batzordekideen osaera aldatzea proposatzen da, aipatu zinegotzia horretan sartzeko.

Idazkariak baieztatu du aipatu puntua sartzea ekaineko osoko bilkuran Kontuen Batzorde Berezia eratu izana gogoratu ez izanaren ondorioz izan dela.

## 4.-COMPOSICION DE LA COMISION ESPECIAL DE CUENTAS:

El Alcalde indica que se ha incluido este punto en el orden del día pensando que la Comisión no estaba creada, cuando ya se había aprobado su composición en el pleno de junio pasado. Pero que al comprobar que la composición aprobada anteriormente no incluía al Presidente de la Comisión de Hacienda, se propone la modificación de sus miembros para incluir a dicho concejal.

La Secretaria confirma que la inclusión de dicho punto se debe a que no se acordaba de que se hubiera constituido la Comisión Especial de Cuentas en el Pleno de junio.

Aferaren edukia bozkatuta, Osoko Bilkurak, bertan diren kide guztien aldeko botoarekin, honako akordioa onartu du:

"2011ko ekainaren 14ko bilkuran onartutako Kontuen Batzorde Bereziaren osaera aldatzea. Aurrerantzean honela geratuko da:
Batzordeburua: Alkatea, Juan Jose Iriarte Vitoria
Gainerako batzordekideak: Jose Javier Sarasola Gorriti, Luis Enrique de la Calle Moreno eta Felix Mendia Villanueva zinegotziak".

**5.- BIDE PUBLIKOKO ETA GUZTIEN LURSAILETAKO LURZORUAREN, HEGALKINEN ETA LURPEAREN APROBETXAMENDU BEREZIENGATIK KOBRATUKO DIREN TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA.**

Alkateak azaldu duenez, gaur egun postuak, barrakak, salmenta-postuak, ikuskizunak eta atrakzioak, txurro-saltokiak, eta antzekoak paratzeagatik ordaintzen diren tasak bi ordenantzatan daude jasota, eta bakoitzean tasak desberdinak dira.

Esan du, horrenbestez, ezinbestekoa dela halako tasak bi ordenantza horietako bakar batean jasotzea, eta zentzuzkoagoa dela ez izatea 'merkataritza ez egonkorra, azoka txikia eta bestelakoak' jasotzen dituena; hortaz, tasa hori beste ordenantzatik kendu egin beharko litzateke.
Esan du, halaber, une honetan ez garela tasaren zenbatekoa berraztertzen ari. Udal-

Sometido el asunto a votación, el pleno, por unanimidad de sus miembros presentes, aprueba el siguiente Acuerdo:

"Modificar la composición de la Comisión Especial de Cuentas aprobada en la sesión del Pleno del día 14 de junio de 2011, que quedará del modo siguiente:

Presidente: El Alcalde, Juan José Iriarte Vitoria

Miembros restantes: Los concejales José Javier Sarasola Gorriti, Luis Enrique de la Calle Moreno y Felix Mendia Villanueva".

**5.-MODIFICACION DE LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LAS TASAS POR APROVECHAMIENTOS ESPECIALES DEL SUELO, VUELO Y SUBSUELO DE LA VIA PÚBLICA Y TERRENOS DEL COMÚN.**

El Alcalde explica que en la actualidad las tasas por la instalación de puestos, barracas, casetas de venta, espectáculos y atraccioens, churrerias, barracas y similares están incluidas en dos Ordenanzas diferentes y tienen también tasas diferentes en cada una de ellas.

Comenta que por tanto es preciso recoger ese tipo de tasas únicamnte en una de las dos Ordenanzas y que es más razonable que sea la del comercio no sedentario, mercadillo y otros, por lo que debiera suprimirse esta tasa de la otra Ordenanza.
Indica también que en este momento no se está planteando revisar el importe de la tasa, que se hará cuando se debatan en conjunto todas las tasas municipales, sino que lo que se pretende ahora es que la tasa esté

tasa guztiak bere osotasunean eztabaidatzen direnean berraztertuko da. Oraingoz, asmoa da tasa hori ordenantza bakar batean arauturik jasotzea, ez bitan.

Aferaren edukia bozkatuta, Osoko Bilkurak, bertan diren kide guztien aldeko botoarekin, honako akordioa onartu du:

"Bide publikoko eta guztien lursailetako lurzoruaren, hegalkinen eta lurpearen aprobetxamendu bereziengatik kobratuko diren tasak arautzen dituen ordenantza fiskala hasiera batean aldatzea onartzea; alegia, aipatu ordenantzako 2. artikuluko 8. atala ezabatzea."

**6.- HORMA HILOBI BATEN ESLEIPENA BERTAN BEHERA UZTEA ETA BESTE HORMA HILOBI BAT ESLEITZEA.**

2010eko urriaren 5ean osoko bilkurak egindako bileran onartu zuen 122 zenbakia duen horma-hilobia Demetria Zubillaga Poza andreari esleitzea 50 urteko epealdirako. Demetria Zubillaga Pozak eskatu du horma-hilobiaren esleipena ez izatea aipatu denboraldi horretara, 10 urterako (berriztagarria) baizik.

Bestalde, Maria Luisa Garcia Garciak 127 zenbakia duen horma-hilobia eskatu duela jakinarazi da.

Aferak bozkatuta, Osoko Bilkurak, bertan diren kide guztien aldeko botoarekin, honako akordioak onartu ditu:

"1.- Demetria Zubillaga Pozaren 122 zenbakidun horma-hilobiaren emakida-epealdia aldatzea; 50 urtetarako beharrean,

regulada únicamente en una Ordenanza y no en dos.

Sometido el asunto a votación, el pleno, por unanimidad de sus miembros presentes, aprueba el siguiente Acuerdo:

"Aprobar inicialmente la modificación de la Ordenanza reguladora de las tasas por aprovechamientos especiales del suelo, vuelo y subsuelo de la vía pública y terrenos del común, consistente en la supresión del apartado 8 del artúclo 2 de dicha Ordenanza."

**6.-REVOCACION DE LA ADJUDICACION DE UN NICHO Y ADJUDICACION DE OTRO NICHO.**

Se informa de que tras la aprobación por el pleno, en su sesión del día 5 de octubre de 2010, de la concesión del nicho nº 122 por un período de 50 años a Demetria Zubillaga Poza, la misma ha solicitado que la concesión del nicho no sea por dicho período, sino que lo sea por un plazo de 10 años renovable.

Por otro lado, se informa de la solicitud del nicho nº 127 por parte de María Luisa García García.

Sometidos los asuntos a votación, el pleno, por unanimidad de sus miembros presentes, aprueba los siguientes Acuerdos:

" 1.-Modificar el plazo de concesión del nicho nº 122 a Demetria Zubillaga Poza, que será de 10 años, renovables, en lugar de los 50 años aprobados anteriormente.

2.- Aprobar la devolución a la adjudicataria

10 urtetarako (berriztagarria) izatea.

2.- Esleipendunari 50 urtekoa izateagatik ordaindutakoaren eta 10 urtekoa izateagatik ordaindu beharrekoaren arteko aldea itzultzea; alegia, 395 €.

3.- 127 zenbakia duen horma-hilobia Maria Luisa Garcia Garciari esleitzea, 50 urteko epealdirako. Esleipendunak emakidari dagokion tasa, 675 euro, ordaindu beharko dio Udalari, gehienez ere hilabeteko epean, erabaki honen berri eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita".

**7.- ARDANTZETA ETA ARTADIA KA- LEETAKO ARGITERIA BERRITZEKO LANEN FINANTZA PLANA ONARTZEN DUEN ALKATETZAREN EBAZPENA BALIOZKOTZEA**

Alkateak jakinarazi duenez, kontuan izanik espedienteko dokumentazioa igortzeko Gobernuak ezarritako epearen presakotasuna, eta uda partean egonik ez zela ezohiko bilkurarik deitzea beharrezkotzat jo, plana Alkatetzaren Ebazpenaren bitartez onartu zen.

Esan du, nolanahi ere, Ogasun Batzordeak eta Hirigintza Batzordeak bazutela bai proiektuaren eta bai eskatu behar zen diru-laguntzaren zenbatekoaren berri. Halaber, bazekiten Nafarroako Gobernuak diruz lagunduko ez duen kopurua Udalaren funts propioekin ordaindu beharko dela.

Horrenbestez, derrigorrezkoa da osoko bilkurak Alkatetzaren Ebazpen hori baliozkotzea.

de la diferencia entre la tasa por la concesión a 50 años y la concesión a 10 años, diferencia que asciende a la cantidad de 395 €.

3.- Adjudicar la concesión del nicho nº 127 a María Luisa García García, por un plazo de 50 años.La adjudicataria deberá abonar al Ayuntamiento la tasa correspondiente, por importe de 675 euros, en el plazo máximo de un mes, contado desde el día siguiente al de la notificación de este Acuerdo".

**7.- CONVALIDACION DE LA RESOLUCION DE ALCALDÍA POR LA QUE SE APRUEBA EL PLAN FINANCIERO DE LAS OBRAS DE RENOVACION DEL ALUMBRADO PUBLICO DE LAS CALLES ARDANCETA Y ARTADIA**

El Alcalde informa de que, debido a la urgencia en el plazo establecido por el Gobierno para remitir la documentación del expedinte y a la época veraniega, en la que no se consideró necesario convocar un Pleno extraordinario para ello, se aprobó el Plan mediante Resolucion de Alcaldía.

Indica que en todo caso, las Comisiones de Hacienda y de Urbanismo ya conocían tanto el proyecto como el importe de la subvención que se iba a solicitar y que el importe de la cantidad que no subvencione el Gobierno de Navarra tiene que se ser abonado con fondos propios del Ayuntamiento.

Por tanto, resulta preciso que el Pleno convalide dicha Resolucion de Alcadía.

Aferaren edukia bozkatuta, Osoko Bilkurak, bertan diren kide guztien aldeko botoarekin, honako akordioa onartu du:

“Ardantzeta eta Artadia kaleetako argiteriaren instalazioa berritzeko lanen finantza- plana onartzen duen alkatetzaren 208/2011 zenbakidun ebazpena, uztailaren 18koa, baliozkotzea.”

Sometido el asunto a votación, el pleno, por unanimidad de sus miembros presentes, aprueba el siguiente Acuerdo:

“ Convalidar la Resolución de Alcaldía nº 208/2011, de 18 de julio, por la que se aprueba el plan financiero de las obras de renovación de la instalacion del alumbrado público en las calles Ardanceta y Artadia”.

**8.-'LURRALDE POLITIKAKO ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOKO MI- NISTERIOAREN' ETA 'NAFARROA- KO GOBERNUAREN' ARTEKO LAN KIDETZA HITZARMENAREKIN BAT EGITEA, ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOKO ZERBITZUAK ELKA RREKIN EMATEKO.**

Aipatu hitzarmenaren edukiaren eta helburu- en berri eman da.

Aferaren edukia bozkatuta, Osoko Bilkurak, bertan diren kide guztien aldeko botoarekin, honako akordioa onartu du:

“Lurralde politikako eta Administrazio publikoko Ministerioak eta Nafarroako Gobernuak 2010eko abenduaren 15ean sinatutako lankidetza-hitzarmenarekin bat egitea, administrazio elektronikoko zerbitzuak elkarrekin emateko.”

**8.-ADHESION AL CONVENIO DE COLABORACION ENTRE EL MINISTERIO DE POLITICA TERRITORIAL Y ADMINISTRACION PUBLICA Y EL GOBIERNO DE NAVARRA PARA LA PRESTACION MUTUA DE SERVICIOS DE ADMINISTRACION ELECTRONICA.**

Se informa del contenido y de los objetivos del mencionado Convenio.

Sometido el asunto a votación, el pleno, por unanimidad de sus miembros presentes, aprueba el siguiente Acuerdo:

“ Adherirse al Convenio de colaboración entre el Ministerio de Política Territorial y Administración Pública y el Gobierno de Navarra, para la prestación mutua de servicios de administración electrónica, suscrito con fecha 15 de diciembre de 2010”.

**9.- HERRI LURRAK EZ DIREN LU- RRETAN EHIZA BARRUTIA ERA- TZEA BAIMENTZEN DUEN ALKATE- TZAREN EBAZPENA BALIOZKO- TZEA. BARRUTI HORREN APROBE- TXAMENDUA 'ILLUNBETA' HERRIKO EHIZTARIEN ELKARTEARI ES-**

**9.- CONVALIDACION DE LA RESOLUCION DE ALCALDÍA POR LA QUE SE AUTORIZA LA CONSTITUTICON DEL COTO DE CAZA EN LOS TERRENOS QUE NO SEAN COMUNALES Y SE ADJUDICA SU APROVECHAMIENTO A LA ASOCIACION LOCAL DE**

**LEITU ZAIO.**

Jakinarazi denez, Partzuergoak, udalerriko herri-lurrak kudeatzeko eta erabilera arautzeko organo eskudunak, onartua zuen bai Irurtzungo eta bai Etxeberriko herri-lurretan ehiza-barrutia eratzea baimentzen zuen akordioa.

Halaber, baita herri-ondasunen izaera ez duten udalerri honetako hainbat ondasun ere, kontuan hartuta eratuko den barrutiaren zati izanen direla. Kontuan izanik, orobat, Ehiztarien Elkarteak aurtengo ehiza-garaia aurretik ehiza-barrutia sortzeko baimena bideratzeko duen premiazkotasuna, aztergai dugun Alkatetzaren Ebazpena onartu zen.

Orain, aipatu ebazpena osoko bilkura honek baliozkotu behar du.

Aferaren edukia bozkatuta, Osoko Bilkurak, bertan diren kide guztien aldeko botoarekin, honako akordioa onartu du:

“Herri-lurrak ez diren herriko lurretan ehiza-barrutia eratzea baimentzen duen, eta horren ehiza-aprobetxamendua 'illunbeta' herriko ehiztarien elkarteari esleitzen dion 225/2011 zenbakidun Alkatetzaren Ebazpena, abuztuaren 9koa, baliozkotzea.”

**10- BILDUREN MOZIOA, OLAZTIKO 'CEMENTOS PORTLAN' ENPRESAN HONDAKINEN ERRAUSTEGIA PARA- TZEAREN AURKA ALTSASUKO HAINBAT HERRITARREK OSATZEN DUTEN PLATAFORMAK EGINDAKO**

**CAZADORES ILLUMBETA.**

Se informa de que el Facero, como órgano competente para la gestión y el uso de los terrenos comunales del municipio, ya adoptó el acuerdo de autorización de constitución del coto de caza en los terrenos comunales, tanto de Irurtzun como de Etxeberri.

Que, asimismo y dado que formarán parte del coto que se va a constituir tambien algunos bienes de este municipio que no tienen el carácter de bienes comunales y teniendo en cuenta la urgencia de la Asociacion de Cazadores para tramitar la autorización de creación del coto antes de la época de caza de este año, se aprobó la Resolución de Alcaldía que nos ocupa.

Procediendo ahora someter dicha Resolución a la convalidación de este Pleno.

Sometido el asunto a votación, el pleno, por unanimidad de sus miembros presentes, aprueba el siguiente Acuerdo:

“Convalidar la Resolución de Alcaldía nº 225/2011, de 9 de agosto, por la que se autoriza la constitución de un coto de caza en los terrenos del municipio que no tengan el carácter de comunales y se adjudica el aprovechamiento cinegético del mismo a la Asociación de cazadores Illumbeta”.

**10.- MOCION DE BILDU SOBRE SOLICITUD DE UNA PLATAFORMA DE VECINOS DE ALSASUA, EN CONTRA DE LA INCINERADORA DE RESIDUOS EN CEMENTOS PORTLAND DE OLAZAGUTIA.**

**ESKAERARI BURUZKOA.**

Felix Mendia Villanueva zinegotziak esan du Irurtzungo etxeetako postontzietan afera horri buruzko informazioa zabaldu dela, eta Altsasuko herritarren plataforma zonaldeko udaletako osoko bilkurei afera honi buruzko iritzia agertzeko eskatzen ari dela.

El concejal Felix Mendía Villanueva indica que se ha buzoneado por los domicilios de Irurtzun información sobre este asunto y que la Plataforma de vecinos de Alsasua está proponiendo a los Plenos de los Ayuntamientos de la zona que se posicionen sobre esta cuestión.

Alkateak esan du bere taldea ados dagoela mozioarekin.

El Alcalde señala que su grupo está de acuerdo con la Moción.

Luis Enrique de la Calle Moreno zinegotziak esan duenez, emandako informazioaren arabera zementu-enpresa erraustegi bihurtuko da, eta hori ez da horrela. Euskal Autonomia Erkidegoan zementu-enpresa guztiek omen dute zementua sortzeko zenbait hondakin erretzeko baimena. Hondakin horiek ez dira toxikoak izanen, ezta arriskutsuak ere. Horrek ez du esan nahi zementu-enpresa erraustegi bihurtuko dutenik.

El concejal Luis Enrique de la Calle Moreno señala que se está hablando de que la empresa cementera se va a convertir en una incineradora y que eso no es así. Que en el País vasco todas las empresas cementeras tienen autorización para quemar determinados residuos, que no serán ni tóxicos ni peligrosos, para producir cemento, pero que eso no significa que se vayan a convertir en empresas incineradoras.

Felix Mendia Villanueva zinegotziak esan du afera hori hainbat alderdi politikori aurkeztu zitzaiela, eta horietako askok ez zutela onartu enpresak erre asmo dituen hondakinak erretzea. Hala ere, Nafarroako Gobernuak bere planei eusten die. Frogaturik dago hondakin horiek erretzeak zonaldeko airera igorpen toxikoak ekarriko dituela.

El concejal Felix Mendía Villanueva señala que este asunto ya se presentó a algunos grupos políticos y que muchos de ellos rechazaron que se quemara el tipo de residuos que pretende quemar la empresa, a pesar de lo cual, el Gobierno de Navarra sigue con sus planes. Que está comprobado que la quema de esos residuos produce diversas emisiones tóxicas en la atmósfera de la zona.

Luis Enrique de la Calle zinegotziak esan du ez dela gauza bera erraustegia eta zementu-fabrika. Azken horrek hainbat hondakin erabiliko ditu erregai gisa zementua sortzeko, baina horrek ez du erraustegi bihurtzen.

El concejal Luis Enrique de la Calle dice que no es lo mismo una incineradora que una cementera, que ésta usará algún tipo de residuos como combustible para producir cemento, pero que por ello no es una incineradora propiamente dicha.

Jesus Pacho Lobato zinegotziak esan du

hondakinak erretzeak lanpostuak sortzen dituela zonaldean edo daudenak ez dira desargetuko, garrantzitsua krisi-garai honetan.

Felix Mendia Villanueva zinegotziak zementu-fabrikan erre asmo diren hondakin-motei eta horietako bakoitzak sortuko duen kutsadurari buruzko datuak eman ditu.

Luis Enrique de la Calle zinegotziak esan du oraingoz baso-hondakinak baino ez direla erreko, eta erne egon beharko dugula erreko den hori egiazki zer den jakiteko.

Jon Joseba Begiristain Jauregi zinegotziak esan duenez, argi dago Portland enpresak sortzen duen zementu kantitate horretarako ez dela aski izanen baso-hondakinak erretzea; beraz, bestelako hondakinak erre beharko dituzte. Hondakin horiek, bestalde, bestelako hondakinak sortuko dituzte. Horrek guztiak, enpresaren eragin-eremuan kutsadura sortuko du.

Mozioa bozkatuta, Olaztin 'Cementos Portland' enpresak duen instalazioetan hondakinak erretzearen aurka Bilduk eta Altsasuko Plataformak aurkeztutako mozioa onartu da. Bozketaren emaitza honako hau izan da: aldeko botoak, alkatea, eta Francisco Goicoechea Arbizu, Miren Eskarne Urteaga Zubia, Saray Ongay Garcia, Jon Joseba Beguiristain Jauregui, Antonio Garcia Garcia, Jose Javier Sarasola Gorriti, Iñaki Razquin Barandiaran eta Felix Javier Mendia Villanueva; aurkako botoak, Luis Enrique de la Calle Moreno eta Jesus Pacho Lobato.

El concejal Jesús Pacho Lobato dice que incinerar residuos generará puestos de trabajo en la zona o no reducirá los existentes, que es importante en esta época de crisis.

El concejal Felix Mendía Villanueva aporta datos sobre los diferentes tipos de residuos que se pretende quemar en la cementera y del volumen de contaminación que genera cada uno de ellos.

El concejal Luis Enrique de la Calle indica que por el momento solo se van a quemar residuos forestales y que habrá que estar al tanto de qué es lo que realmente se quema.

El concejal Jon Joseba Beguiristain Jauregui señala que está claro que para producir la cantidad de cemento que produce la empresa Portland no es suficiente con que se quemen residuos forestales, sino que tienen que quemar otro tipo de residuos. Que estos residuos a su vez producirán otro tipo de residuos. Que ello va a generar contaminación en toda la zona afectada.

Sometida la Moción a votación, el pleno, con el voto favorable del Alcalde y de los concejales Francisco Goicoechea Arbizu, Miren Eskarne Urteaga Zubia, Saray Ongay García, Jon Joseba Beguiristain Jauregui, Antonio García García, José Javier Sarasola Gorriti,Iñaki Razquin Barandiaran y Felix Javier Mendia Villanueva y el voto en contra de los concejales Luis Enrique de la Calle Moreno y Jesús Pacho Lobato, aprueba la Moción presentada por Bildu y la Plataforma de vecinos de Alsasua en contra de la incineración de residuos en Cementos Portland de Olazagutia.

**11.- DEIKAZTELU IZENEKO 400/220 KV-ko AZPIESTAZIO ETA HORRE-KIN LOTURA DUTEN LINEA PROIEKTUARI NAFARROAKO HAINBAT UDALEK AURKEZTUTAKO HE-LEGITEEKIN BAT EGITEA**

Alkateak esan duenez, Nafarroako Gobernuak proiektuari helegiteak aurkezteko ezarritako epe motz horrekin, eta kontuan hartuta, horrez gain, uda partea zela, ezinezkoa izan zen Irurtzungo Udalak proiektuari helegiteak aurkeztea.

Hala epe motz baten aurrean, zenbait udalek helegiteak aurkezteko epea luzatzea eskatu dute. Beste batzuek, berriz, zuzenean aurkeztu dituzte.

Argi utzi nahi izan du Irurtzungo Udala azpiestazio-proiektuaren aurka dagoela, eta horregatik, Sakanako Mankomunitateak eta beste hainbat udalek aurkeztutako helegiteekin eta Nafarroako zenbait udalek helegiteak aurkezteko epea zabaltzeko eskaerarekin bat egiteko proposamena ekarri du.

Luis Enrique de la Calle Moreno zinegotziak adierazi du goi-tentsioko lineak eta azpiestazioak beharrezkoak direla. Eta gaineratu du une honetan premiarik handiena duen linea 200KV-koa dela eta ondoren 400 KV-koa izango dela, eta hori horrela dela esateko kontuan hartu duela gaur egun orokorrean eta zehazki Sakanan zer eskaera eta behar dagoen.

Felix Mendia Villanuevak esan du linea

**11.- ADHESION A LAS ALEGACIONES PRESENTADAS POR ALGUNOS AYUNTAMIENTOS DE NAVARRA AL PROYECTO DE SUBESTACION 400/220 KV DENOMINADA DICASTILLO Y LINEAS ASOCIADAS.**

El Alcalde señala que en los plazos tan reducidos que estableció el Gobierno de Navarra para hacer alegaciones al proyecto y teniendo en cuenta que además era verano, no fué posible que Irurtzun presentara Alegaciones al proyecto.

Que ante un plazo tan corto, algunos Ayuntamientos han solicitado la prórroga del plazo para presentar alegaciones y otros han presentado directamente algunas Alegaciones.

Quiere dejar claro que el Ayuntamiento de Irurtzun está en contra del proyecto de subestación y que por ello trae la propuesta de adherirse a las Alegaciones presentadas por la Mancomunidad de Sakana y por otros Ayuntamientos, así como de adherirse a la solicitud de ampliacion del plazo para presentar Alegaciones realizada por algunos Ayuntamientos de Navarra.

El concejal Luis Enrique de la Calle Moreno indica que tanto las líneas de alta tensión como las posibles subestaciones que se tengan que construir son necesarias. Añade que actualmente la línea que tiene carácter de urgencia es la de 200KV, a posterior será la de 400 Kv , atendiendo a la demanda que actualmente existe y más concretamente en la zona de la barranca, en la cual existe este tipo de necesidad”.

El concejal Felix Mendía Villanueva señala

horrek oso xede zehatza duela, asmoa ez dela Sakanaz energiaz hornitzea, eta, halaber, ez duela zonaldean enplegurik sortuko.

Alkateak esan du linea horren aurka Nafarroako udalak ez ezik, Arabako Batzar Nagusia eta Eusko Jaurlaritza bera ere aurka daudela; horien iritziz sareak ez bailuke Sakanatik pasa beharko. Ondoren esan du Sakanan ez dagoela arazorik hornidura elektrikoarekin; afera dagoen energia ondo aprobetxatuko duten azpiegiturena da. Proiektuaren aurka agertu dira alderdi politiko anitz eta ideologia desberdineko udalak.

Jesus Pacho Lobato zinegotziak esan du bere uztez Espainia ez dela autosufizientea energia elektrikoari dagokionez; izan ere, gaur egun energia anitz ari baita Frantziari erosten.

Mozioa bozkatuta, alkatearen, eta Francisco Goicoechea Arbizu, Miren Eskarne Urteaga Zubia, Saray Ongay Garcia, Jon Joseba Beguiristain Jauregui, Antonio Garcia Garcia, Jose Javier Sarasola Gorriti, Iñaki Razquin Barandiaran eta Felix Javier Mendia Villanuevaren aldeko botoekin; eta Luis Enrique de la Calle Morenok eta Jesus Pacho Lobatok aurka bozkatuta, honako erabaki hauek hartu dira:

"1.- Sakanako Mankomunitateak eta Nafarroako hainbat udalek Deikaztelu izeneko 400/220 kv-ko azpiestazio-proiektuaren eta horrekin lotura duten linea-proiektuaren aurka aurkeztutako helegiteekin bat egitea.

que esta línea tiene una finalidad muy concreta, que no pretende suministrar energía a Sakana y que tampoco creará empleo en la zona.

El Alcalde señala que no solo están en contra de esta líena los Ayuntamientos Navarros, sino que se han posicionado en contra las Juntas Generales de Alava y hasta el Gobierno Vasco, por considerar que la red no debe pasar por la zona de Sakana.. Continúa señalando que en Sakana no hay problema de suministro de energía eléctrica, que el problema es de infraestructuras para aprovechar bien la enería que existe. Que este proyecto ha conciliado la oposición de muchas fuerzas políticas y de Ayuntamientos de diversa ideología.

El concejal Jesús Pacho Lobato dice que cree que España no es autosuficiente en energía eléctrica, porque ahora mismo se está comprando mucha energía a Francia.

Sometido el asunto a votación, el pleno, con el voto favorable del Alcalde y de los concejales Francisco Goicoechea Arbizu, Miren Eskarne Urteaga Zubia, Saray Ongay García, Jon Joseba Beguiristain Jauregui, Antonio García García, José Javier Sarasola Gorriti,Iñaki Razquin Barandiaran y Felix Javier Mendia Villanueva y el voto en contra de los concejales Luis Enrique de la Calle Moreno y Jesús Pacho Lobato, aprueba los siguientes Acuerdos:

"1.- Adherirse a las Alegaciones presentadas por la Mancomunidad de Sakana y por algunos Ayuntamientos de Navarra en contra del proyecto de Subestación 400/220 kv denominado Dicastillo y líneas a 400kv y líneas

asociadas ( Pamplona).

2.- Aipatu proiektuari helegiteak aurkezteko epea luzatzeko Nafarroako hainbat udalek egindako eskaerarekin bat egitea.”

2.- Adherirse a la solicitud de ampliacion del plazo para presentar Alegacioens a dicho proyecto realizada por algunos Ayuntamientos de Navarra”.

**12.- GALDE-ESKEAK**

**12.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

Ez dago.

No se formula ninguna.

Azkenik, alkateak jakinarazi du zein egunetatik zein egunetara hartuko dituen oporrak idazkariak. Hori dela-eta, hurrengo osoko bilkura urriaren 14an izanen da.

Por último el Alcalde indica las fechas en las que la Secretaria se va a coger vacaciones, motivo por el cual el próximo pleno será el día 14 de octubre.

Jakinarazi du, halaber, Euskara Batzordea eta Kontuen Batzordea urriaren 6rako deituko direla, eta afera gehiagorik egonez gero, gainerako informazio-batzordeak osoko bilkura baino lehen deituko direla.

Informa, asimismo, de que las Comisiones de Euskera y de Cuentas serán convocadas para el día 6 de octubre y que si si hay más asuntos que lo requieran, se convocarán el resto de las Comisiones Informativas antes del Pleno.

Hori dela-eta, zinegotziei esan die batzordeetan aztertu beharreko gairen bat izanez gero, behar besteko denborarekin aurkez dezatela; izan ere, osoko bilkura ezohikoa izanen denez, horretan ez da bilkuraren eguneko aztergaietan ez dagoen deus eztabaidatuko.

Por ello, dice a los concejales que si tienen algún asunto que someter a las Comisioens lo hagan con tiempo suficiente, porque al ser el pleno de carácter extraordinario, no se debatirán nada en el mismo que no esté en el orden del día de la sesión.

Aztergai gehiagorik ez dagoela, eta arratsaldeko zazpiak eta berrogei minutu direnean, udalburuak bilkura amaitutzat jo du. Idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren Egiaztapena egiten dut.

No habiendo más temas que tratar y siendo las diecinueve horas y cuarenta minutos, el Presidente levanta la Sesión de la que extiendo la presente Acta que, como Secretaria, Certifico.